

Beste elkartasun erakustaldi bat koronabirusaren krisi betean

**EROSKI-K ETA YURRITA GROUPEK HIRU TONA
ARRAIN KONTSERBA EMAN DIZKIOTE
DOHAINTZAN BIZKAIKO GURUTZE GORRIARI**

- EROSKI markako 24.000 eskabetxe erako hegaluze lata eman dituzte, 111 gramokoa bakoitza
- EROSKI elkartasun ekintza asko gauzatzen ari da COVID-19aren krisiaren ondorioak gizarteko sektorerik zaugarrienetako batean gutxitzeko helburuz

Elorrio, 2020ko ekainaren 1a.- [EROSKI](#)k eta [Yurrita Groupek](#), arrain kontserbetan eta erdi kontserbetan espezializatuta dagoen enpresak, hiru bat tona hegaluzeren kontserbak eman dizkiote dohaintzat Gurutze Gorriari, eta horrek gehien behar duten kolektiboek banatuko dizkie. Zehazki, EROSKI markako 24.000 hegaluze lata dira, eskabetxean; eta Bizkaiko Gurutze Gorriak zaugarritasunean diren familiei emango dizkie, Bizkaian dituzten eskualde mailako hamaika batzarren bidez.

EROSKI elkartasun ekintza asko gauzatzen ari da COVID-19aren krisiaren ondorioak gizarteko sektorerik zaugarrienetako batean gutxitzeko helburuz.

"EROSKI-k badaki nola erasaten dien krisiak gizarteko kolektiborik zaugarrienei. Ekintza honekin, gure aletxoak jarri nahi dugu, eta gehien behar dutenei elikagaiak eman", esan du EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

"Eskerrak eman nahi dizkiogu EROSKIri, elikagai hauek emateko orduan gure ondoan egon delako; elkartasun konpromiso horrek batzen gaitu bi erakundeak", esan du Yurrita Groupeko zuzendari nagusiak, Alberto Barquin Loisek.

Ekintza honen aurretik, Yurrita Groupek beste batzuk gauzatuak ditu, hala nola Lorea Gourmet Solidario kanpaina, Gipuzkoako AECCekin eta *"Sonrisas que dan vida"* Madrilgo elkartearekin, minbiziaren aurkako ikerketan laguntzeko.

"Enpresen sektorea asko laguntzen ari zaio Bizkaiko Gurutze Gorriari COVID-19aren gaitzari aurre egiteko orduan; izan ere, pandemia hori oraindik gure artean da, eta

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



handitu egin du jendearen prekarietatea. Dohaintzei esker, krisiak eragin txikiagoa du familiengan. Horregatik eskertu nahi ditut EROSKI eta Yurrita Group, erakutsi duten konpromisoagatik eta eskuzabaltasunagatik", esan du Bizkaiko Gurutze Gorriko presidentek, Victor Gutierrezek.

EROSKIk beste zenbait ekimen ere jarri ditu martxan, koronabirusaren krisiak dirauen artean kolektiborik zaugarrieneri laguntzeko. Zehazki, Gurutze Gorriarekin batera, elkartasun ekintza bat jarri zuen martxan estatuko lurralde osoko saltokietan, dirua biltzeko eta diru horrekin elikaduran eta higienean laguntzeko nori eta COVID-19aren krisi honetan are zaugarriago utzi dituen kolektiboei, hau da, bazterketa arriskuan diren haurrei eta familiei. Kanpaina horren bitartez, EROSKIk 120.000 euro baino gehiago biltzea lortu du. Gurutze Gorria arduratuko da, RESPONDE planaren bitartez, diru hori 25.000 familiari bideratzeaz.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)